

En definitiva, nos hallamos ante una obra tan monumental como necesaria para quienes deseen conocer en detalle el patrimonio industrial de Navarra, con dos menciones especiales: su redacción y su aparato gráfico, como bien queda resaltado en estas líneas.

Alberto Ballestero



AZURMENDI, Joxe
Beltzak, juduak eta beste euskaldun
batzuk

Donostia : Elkar argitaletxea, 2018
130 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-9027-801-7

Joxe Azurmendik idatzi gabeko Joxe Azurmendiren beste liburu bat da *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Xabier Mendiguren editoreak bildu dituen lau testu itxuraz desberdinek osatzen dutena. Ez da hori liburuaren meritorik txikiena, Azurmendik hainbat testu inguru eta garaitan ondu zituen idazkiak aukeratu eta zentzu osoz baitaude liburu berrian josiak. Editoreak berak aurreratzen du zein den liburuaren josten duen haria, ertz desberdinetatik bada ere gai bera ikusten baita atal guztietan: «zernahitaz ari dela ere, gutaz ari da beti Azurmendi» (7).

Apur bat gehiago zehaztekoan, esan liteke *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk* liburuaren bidez ere, euskaldunaren gisako herri, komunitate, nazio edo dena delako batek modernitatean izan dituen gorak eta beherak pentsatzeak ezaugarritzen duela. Horixe da bildutako hitzaurre, epilogo eta artikuluen atzean sumatzen den ideia, nahiz eta bakoitzaren gaiak ikuspegi berri bana eranstean duen.

Lehen atala, “Mestizajea, multikulturalismoa”, Inazio Aiestaranen *Munstro abertzalea* poema liburuaren argitaratu zen 2003an eta modernitate osteko globalizazio garaian euskaldun izateak dituen erronkez ari da, *négritude* mugimenduaren islari begira. Bigarren atalean, berriz, judua da euskaldunaren ispilu; modernitatean zehar hautsiz joan den herri baten baitan ematen diren nortasun krisi, ukazio eta autogorrotuak ditu hizpide Mitxelko Urangaren 2011ko *Espektroak. Gutuna euskalduntasunari buruz* liburuaren hitzaurre zen testuak. Hirugarren atala berez Pello Huizi psikologoari eskainitako omenaldi liburuaren argitaratu zen urte berean. Izenburuan bertan aurreratzen denez, nazioez ari garenean historia ikusi ez, asmatu egiten dela defendatuko da testuan; historia nazionalak mitoen antzera ulertu behar direla eta horrek bere balioa duela, frantziar edo espainiar historia nazionalak erlatibizatzeke ez-ez, euskaldunen beren mito historikoak kokatzeko ere. Azkenik, “Espainola izateaz” atala Joxe Mari Esparzaren *Cien razones por las que dejé de ser español* liburuaren hitzaurre izateko idatzi zen 2006an, nahiz eta azkenean *Espainiaren arimaz* Azurmendiren liburu ireki. Bertan, berriro, fokua euskaldunen komunitatean jartzen da, gaur egun oraindik Nazio-Estatuetan, espainolean zehazki, eman ohi den nazionalismo bala gogoetatuz.

Ildo nagusi hori hainbat anekdotak, istoriok, autoreren irakurketak eta erreferentziak osatzen dute, gutxitan nahasgarri eta behin ere ez alferrikako. Horrela, azkenean testu laburrek osatutako liburu arin eta atsegina osatu dute Azurmendik eta Mendigurenek, autoreak ohituta gauzkan zenbait saiakera trinkoren bestelako emaitza, nahiz eta lan luzeagoetan gaiaz eman izan dituen ideia gehienak agertzen diren era batera edo bestera.

Mestizajea, multikulturalismoa

Liburu osoan zehar errepikatzen den ideia da nortasun pertsonal edo kolektibo hautsiarena. Lehen atala sentsazio horretatik abiatzen da, aro globalean areagotu dena. «Inor ez da bizi engoitik tradizio bakarrean, erlijio edo sinesgabezia bakarrean; ezta hizkuntza bakarrean ere —euskalduna gutxienez—, unibertso bakarrean, literatura bakarrean, aberri edo historia bakarrean.» (12) Eta horregatik, gaur egun oraindik euskalduntasunari buruz aritzea, lelo politiko bera errepikatuz, solas berak izanez, korrontearen aurka eginez, nekagarri zaio Azurmendiri. Egungo garaietan postmodernitatearen espiritu horri heltzea moda ere badela esango du, garai batean alienazioa eta deserrotzea zenari positiboki iriztea.

Autoreak berak aitortzen du mestizajeak sortzen dion kontraesana: kulturalki nahasketak eta erreferentzien aniztasuna positiboki irizten baditu ere (Orixeren eta abarren tradizioari ihesi kanpoko edozein literaturatik edatea, adibidez), politikan aniztasunak arazoak sor ditzakeela garbi adierazten du. *Négritude* mugimendua anbiguotasun hori irudikatzen ekarria dago testuan eta balio du ikusteko 60ko eta 70eko hamarkadetan Azurmendik zituen erreferentziak. Horrela, XX. mendeko lehen hamarkadetan, herri afrikar zenbaitentzat kultura europarrarekin izandako harremanak (lirika beltza, Senghor) zenbait ondorio positibo izan zituela dio; batik bat, zibilizazio zuriaren indarberritzeko, baina baita ordura arte espresio idatzira atekak itxita egondako beltzek kultura literario ofizialean leku bat izan zezaten. *Négritude*ko poeten mestizajeek kultura unibertsala zuten helburu, progresuaren ildo zuzenari beren ekarpena egiteko. Hor aurkezten du gakoa Azurmendik, xede unibertsalaren aldarriak europarrentzat balio baitzezakeen irekitasunerako dei gisa, baina herri beltz kolonizatuak birkolonizatzeko ere balio zezakeen bezala. Kultura nagusian lekua eskainiz atzera subordinatzeko, esango litzateke orain. Hain zuzen, horrexen kontra aldarrikatzen den kultura europarekiko etena dakar Azurmendik ondoren, deskolonizazio prozesuen garaian kokatua eta Memmi-k irudikatua.

Mugimendu literario beltzaren adibidea unibertsaltasunaren eta kulturartekotasunaren auzia mahaigaineratzeko dago idatzia. Azurmendiren esanetan, «dena ez baita diferentziaren harmonia eta gozo hutsa. Ikusmolde horretan ikusi gabe uzten da apropos konfliktoa». (22) Diferentzia denak berdina ondo ez direla ezkontzen gogoraraziko du orduan; negatibitateak ere (ez) garenean duen eragina, zer baietsi eta zeri uko egin hautatu beharra dagoela nahitaez. Aldarri bat dakar Azurmendik, umiltasun apur bategatik bada ere, inoren aurrean norberaren unibertsaltasuna ahotan hartzearen lotsaz behar genukeela, egunero bistaritzen baita gure mugatutasuna.

Puntu horretan datoz Azurmendik bere obran zehar etengabe errepikatzen dituen bi ideia. Batak defendatzen du kultura denak, txikiena ere, mestizatu (plurala, alegia) dela eta beti-beti unibertsala. Zehatzago esanda, Azurmendirentzat izaeraz edo naturaz da unibertsala kultura oro, gizatasunaren garapen osorako posibilitatea guztietan eskaintzen baita. Gero, ordea, konkretura etorrita, denboraren baldintzen pean, kultura guztiak dira partikularrak, historia konkretuen emaitzak. Horregatik dio Azurmendik kultura partikular bat izateak aldi berean eskaintzen duela beste kulturetarako leihoa eta, era berean, gurea ez den kultura horren «bestetasuna». Bitasun horrekin dago lotuta Azurmendiren bigarren ideia nagusia ere, unibertsaltasunaren kontzeptuari dagokiona: «Unibertsaltasuna beti gizakiari eskainita dago, inoiz ez emanda.» Horrek zuzenean garamatza autoreak beste zenbait liburutan erakutsi duen Humboldtren (eta Kanten edo Herderren) eraginera. Unibertsaltasuna egjinbehar-

tzat du, bilatzekoa den eta, idealaren mailan kokatu duenez, errealki inoiz lortzen ez den zerbait gisa aurkezten du Azurmendik.

Lehen kapitulu horren gauza interesgarrienetakoa Azurmendiren testu filosofikoenetako bi ideia horiek mestizajearen eta multikulturalismoaren auzian topatzea da, atzean dagoen konkretura ekartzeko ahalegina. Ideia horietatik begiratzen du Azurmendik globalizazioaren aroan bizi den Euskal Herrira. Munduarekin elkarriketa, Euskal Herriaren lekua munduan, kulturatik pentsatuz abiatzea proposatzen du, mundura irekiera hori gure txikitasun eta ezintasunak ikusiz. Geure burua kuestionatzeko bai, baina kontraesanetatik eta barne hausturatik indartzeko ere bai. Azurmendik poesian ikusten baitu zertxo garen, baina baita zenbat libertate eta edertasun dugun ere munduarekin partekatzen.

Juduaren ispiluan euskaldun bat ikusten da

Bigarren kapituluaren gaia herri azpiratu edo komunitate hautsiengan ohikoa den beste fenomeno bat da. Aurrekoan *negritude* mugimenduarekin bezala, Azurmendik juduaren ispilua hartuko du, kasuan sakontzeko baino, jorratu nahi dituen ideiak aipatzeko bidelagun. Horregatik, konparazioa baino asoziazioa da judutasunaren eta euskalduntasunaren artean dagoena. Bazterrekotasunaren ideia, oniritziarik eta onikusirik eza, antzinako garaien pitxi exotiko izateari utzi ezina irudikatu nahi ditu, baina bien arteko distantzia murriztu gabe (hortik Nafarroako pogromoa aipatzen). Kapituluaren gaia estatu propiorik gabeko nazioek modernitatean egokitzeko izan duen zailtasun multzoa da, hasi autogorrototik eta ukazioraino.

Zailtasun horien jatorriaren bila egiten du modernitatearen irakurketa kritikoa. Abertasgarria egiten da kritika horretan autoreak ohikoago dituen erreferentziak (batik bat XVIII-XIX. mende inguruko pentsamendu alemanekoak) utzi eta hori ere judutasunaren gogoetatik egitea, Reyes Mate-ren *De Atenas a Jerusalén. Pensadores judíos de la modernidad* abiapuntu hartu eta Hannah Arendtekin zein Isaiah Berlinekin osatuz. Materi hartzen dio Erdi Arotik Modernitateara dagoen aldaketa esanguratsu bat. Erdi Aroan autoritatea banatuta zegoela esango du, Jainkoaren, erregearen, Elizaren, familiako aitaren eta norbere herriko tradizioaren artean; juduek eta euskaldunek libre zutela komunitate berezi izatea, libertatea ere pluralean («jendearen libertateak») deklinatzen zela (48). Estatu modernoak, berriz, askatasuna bakar eta abstraktu bilakatu zuen. Estatuaren edo erregearen menpekoak, herri desberdinen multzo izatetik hiritar berdinen gorputz politiko izatera pasatzen dira.

Estatu modernoak, manupekoen arteko desberdintasunak ezabatzeko bidean, hiritartasuna asimilazio kulturalarekin lotzen duela irakurriko dio Azurmendik Materi. Eta horrek estatuko kultura edo nazio nagusia ez den oro bidegurutze baten aurrean jartzen duela adierazteko balio dio Azurmendiri: edo Estatu modernoak agindutako identitate hartu, edo modernitateatik at geratu; edo judu, edo moderno, alegia. Hautatu behar moderno horretan kokatzen du hainbat auzi nazionalen eta asimilazio prozesu gatazkatsuren sorrera ere. Hain zuzen, kapitulu honetan Azurmendik bigarren bideari heltzen dio, asimilazioari. Judu ezagunen kasuak kontatzen dira, baina hurbilagokoen oihartzunak ekartzeko moduan idatzita daude, ezagunak zaizkigun izenen arteko parekidetasuna erakustez arduratzen da. Arendt eta Berlin autoritate hartuta, judutasunari uko eginez asimilatu den juduaren bi tipo bereizten ditu (testuan zehar alderantzikatzen den izendapen nahasgarri eta guzti): jatorriaren harrotasunez asimilatu den juduarena batetik, Benjamin Disraeli eredu, eta judutasunaren erdeinuz eta gorrotuz asimilatua bestetik, Karl Marxek gorpuztua.

Bi kasu prototipiko eta asoziazio horiekin zer esan nahi den galdetuz iristen da irakurlea kapituluaren azken zatira. Euskal herriaren egoera nolakoa den da azpian dagoen galdera, nondik interpretatu Estatu moderno espainiar eta frantziarrak desegin duen komunitate hori, inoiz behar bezain moderno izan ez dena. Belaunaldi bakoitzak bere begikera duela adieraziko du Azurmendik, eta eurenari, irrealtasun eta agonia sentsazio horretatik ere, baiestea zegokiela aldarrikatuko du. Gazteagoek, ordea, egoeraren irakurketa kritika

postmodernoenetatik egiten ote duten irudipena adierazten du, Urangaren esaldia ekarriz: «euskal kultura hilik dago», espektrorik bilakatu da (72). Eta hori ikusita, kapituluaren zehar erakutsi dituen bideek ohartarazpenak dirudite, iraganean edo erresuminean ez kateatzeko. Lehen bezala orain euskalduntasuna naturala ez beste guztia izanda ere, Urangak horren heriotza euskaraz dekretatzen duela seinalatuko du Azurmendik, halako *ep pur si muove* baten tonuarekin.

Historia ez da ikusten, asmatu egiten da

Hirugarren kapituluak aurrekoan aipatu soilik egiten den ideia bati heltzen dio zuzenean: nazioari buruzko ikerketetan seinalatu ohi den tradizio nazionalaren eraikuntza edo asmakuntzari. Izatez, hemengoa ere asmakuntza horren kritika bat da, baina ohiz bestera, ez da derrigor zentzu negatiboan garatzen. Azurmendik historia, mito historikoak nola eta zein zentzurekin eraiki izan diren erakutsi nahi du testuan zehar.

Hain zuzen, historiagintzaren definizio bila hasten du testua. Zientzia orok bere objektu berekia edo objektua begiesteko molde propioa duela esango du, baina historiak ez duela bere ikergeraia eginda topatzen. Horregatik, historiagintza zientifiko baten objektua ezartzeko irizpidea ezarri beharra dago. Modernitatean hori, Hegelen eskutik, Estatuaren perspektibatik egiten dela defendatuko du; alabaina, bere esanetan, komeni da ohartzea egun diren Nazio-Estatuak ere nazio estatugabeak bezain eraikuntza historiko, kultural, politiko, juridiko... direla. Hau da, Azurmendik erlatibizatu egin nahi du historiagintzaren objektu, ikerketa historikoaren abiapuntu, beti Estatu hartzea. Historiaren subjektuak, ikerketaren objektu bihurtzen direnak, eraiki egin behar dira lehenik, gero horien arabera ulertzeko gertakariak. Hain zuzen, historiak bere-bere objekturik ez duelako har daiteke Frantzia adinako zilegitasunez Eliza Katolikoa edo Mediterranea.

Historiaren ideia horrekin irakurtzen ditu Azurmendik nazioen inguruko mito historikoak. Zehazki Asterixen mitoaren inguruan Frantziari buruzko ze diskurtso gordetzen den erakusten du batean. Bestean Karlos V.aren genealogiak aztertzen ditu, genealogismoak historia eta racionalitate modernoan duen presentzia nabarmena azpimarratuz. Asterix eta arima frantsesaren metonimia batetik, Karlos V.a eta jatorriaren bitarteko legitimazioa bestetik, historiagintzaren oinarritzko elementu gisa ilustratzen ditu.

Bi adibideen funtzioa ideia konkretu bat kokatzea da. Euskaldunei, eta oro har estatuturik ez duten nazioetako nazionalistei, historia euren interesen arabera manipulatzeko egoten zaie. Azurmendik historia nazionalaren irakurketa mitifikatuak ez direla nazionalista izendatu horien eskusiboak adierazi nahi du. Are gehiago, esango du kultura europarraren lur komuna direla mito horiek: «Ez dut esaten herri bakoitzak bere mitoak dauzkala eta denak antzekoak direla. Esaten dudana da Europa guztiak funtsean mito bat-bera daukala, eta berdina dela guztiontzat» (91). Kulturalki interesatzen zaizkio beraz historiaren irakurketa mitifikatu horiek, legitimazio politikoari begira aspaldi kritikatuak izan baitira. Mitoak agertzen dituen balioak eta sortze garaiko testuinguruak ulertzea bilatzen du, horren zentzua berberaikitzea.

Baina mitoaren erdeinu berehalakoa baztertuta ere, Azurmendi ez da horren defentsara lotzen. Iraganean sortutako mitoak bere garaian zuen zentzu positiboa galdu dezakeela jakitun, iraganaren esklaboak ez izateko hura gairiditza deitzen du. Iraganeko mitoak baitezpada defendatu beharrean etorkizuna, utopia, erreibindikatzeko du mitoaren alboan. Memoria eta itxaropena, komunitatearen zutabe.

Espainola izateaz

Estatu modernoaren izaerak hegemoniko ez diren hainbat herriri dakarkien hautatu beharraz eta horren jatorriaz ari zen bigarren kapituluak. Fenomeno berberaz dihardu azken honek ere, baina bigarrenaren asimilazio prozesuen gorabeheretara mugatzen bazen, laugarrenak autorea

bera jartzen du hautuaren aurrean. Azurmendiren gogoeta pertsonal bat da, espainola izateaz, espainola izan beharraz eta horren zentzuaz. Bi plano nahasten dira kapituluaren zehar, auziaren irakurketa filosofikoa bata eta autorearen lehen pertsonako esperientzian oinarritua bestea. Kapituluaren besteak baino laburragoa da, baina Azurmendiren nazionalismo espainiarrari buruzko jarrera modu argian erakusten du.

Irakurketa filosofikoak liburuko gainontzeko kapituluetan jorratutako ideia gehienak ukitzen ditu. Erdi Arotik Modernitateko igarobidean Nazio-Estatua nola eraikitzen den aipatzen du, barne herri desberdinen aurka eta naziotasunaren ideia konfesional bat eraikiz Eliza katolikoaren irudiko. Progresuaren ideologia hemeretzigarrenaren lekua ere seinaltzen du Estatu modernoaren legitimazioan. Nazio-Estatu espainiarraren eraikuntza eta hiritarren homogeneizazioa gainontzeko herrietatik izan den txikizioa nabarmendu ere egiten du. Eta azkenik, homogeneizazio hori buruzko ezintasuna oraindik orain begi-bistakoa dela argudiatu du.

Interesgarria bigarren planoan da, filosofiaren esparrutik Azurmendik berera egiten dueneko. Hor Azurmendik bere esperientzia kontatzen du. Bere euskaldun izatearen ebidentzia kontatzen du eta hautuak horretan duen garrantzia, jairolekuaren aurretik; ebidentzia horrek Espainian sortzen dituen problemak Estatu antolatuta dagoen moduan egonda. Funtsean nazionalismo banalaren pairamendua da kontatzen duena: identitate arazorik ez duela dioten Lehendakariaren erdeinua berak ordezkaturako euskaldun multzo baten arazoi, espainoltasunari dagokionez abstenitzen diren baina batasunari tinko eusten dioten *status quo* zaleen jarrera... Kultura politiko horretan euskalduntasun ez agresibo bat ezinezkoa dela ikusiko du Azurmendik, Estatu bururatzeko kontzeptu horrekin espainola izan nahi ez izatea edo soil-soil euskaldun gisa agertu nahi izatea berez delako errebindikatzailea. Identitate arazorik gabe guztiak bizi litezkeen Espainia eraikitzeo aukera teorikoa metafisiko iruditzen zaio Azurmendiri. Eta esperientzia horretatik eratorzen du bere jarrera:

Esango zenuke, hortaz, zure erantzuna bien artean zalantzatzeko dela: erabakiaren artean, Espainia horretako espainola ez duzula inola izan nahi, eta abstentzioaren artean, zure jarreraren funtsean politikoa baino gehiago beste zerbait delako: ekologia sozial minimo bat gutxiengoaren begirune sakratua errebindikatzen duena, protesta etiko bat inperialismo politiko eta genozidio kultural espainolaren aurka, exijentzia politiko bat edozein herri bere buruaren jabe izateko eskubidearentzat, etab. Azken batean zure zalantzak espainol zaren ala ez, hortik sortzen dira. Ezin duzu baietz esan, eta ezetz nahiago zenuke ez esan. (126)

Liburuan zehar errepikatzen diren balioak agertzen dira pasartean, antiinperialismo-tik autodeterminaziora kulturagintza tarteko. Oraingoan, ordea, negritude edo judurik ez dago, Azurmendi ari da beretik Modernitatean ezarritako estatu nazionalaren oinarrien aurka, honetzeko demokratikoa, dauden Estatuak nahitaez salbatu beharrean, txikitutako herriak eta kulturak euren bidetik berregitea dela errebindikatuz.


Gogoetarako abiapuntu bat

Azurmendiren testu askok bezala, liburu honek ere konklusio faltaren sentsazioa uzten dio irakurleari. Auzi bat historikoki nahiz filosofikoki kokatu, han eta hemen lotura interesgarriak egin eta hainbat jarreraren arriskuez ohartu ostean, testu amaiera irekiarekin bukatzen zalea da Azurmendi. Baina liburuan zehar egindako bideak eztabaiden mapa osatu ematen du, batzuetan baikorrako sumatzen dena besteetan baino. XXI. mendean hemeretzigarreneko estatuen batasun printzipioari eutsi baino mundu globalean horien menpeko herriak batzeko beharra erakusten du, unibertsaltasunaren eta aniztasunaren arriskuez ohartzearrekin batera. Gogoetarako abiapuntu bihurtzen da horrela liburuak, egungo zenbait korronterekin (dekolonialitatearekin argien) elkarrizketa ireki dezakeena.

Nabarmentzekoa da Azurmendik berak ere igartzen dion belaunaldi desberdinek egoeraz egin dezaketen irakurketa. Bigarren kapituluaren esplizitua da distantzia hori, baina Azur-

mendiren esperientziak espainoltasunarekiko edo kultura unibertsalarekiko nahitaez izango dira gazteagoenetatik desberdinak. Dena dela, diferentzia hori modu irekian hartzen baita, belaualdi berrie ere gogoetarako abiapuntu bat ematen die liburuak, ikusteko zertan balio dieten garatutako ideiek eta zertan ez. Sentsazioa ematen du, horregatik, liburua den ispi-luak (metafora errekurrentea idazki osoan) isla interesgarriak itzuliko dizkiola, ohiko Azurmendiren irakurleez gain, euskarazko pentsamendura heldu diren, eta posmodernitatera igaro baino posmodernitatera jaio diren, azken-azken belaualdiei ere.

Azurmendi, Haritz



GABILONDO ALBERDI, Joseba
Introduction to a Postnational History
of Contemporary Basque Literature
(1978-2000). Remnants of the
Nation

Woodbridge : Tamesis, 2019
 338 p. ; 24 cm
 ISBN: 978-1-85566-332-9

The stereotypical notion of diaspora is often associated with tradition and reluctance to change. Joseba Gabilondo's research, produced at Michigan State University, from the distance of diaspora, is diametrically opposed to such an image: many of his publications are synonymous with innovation and has brought a breath of fresh air into Basque Studies. His recently published book, *Introduction to a Postnational History of Contemporary Basque Literature (1978-2000). Remnants of the Nation* (Tamesis, 2019), is not an exception to this: Gabilondo's brilliant work provides an exciting new insight into history of Basque literature(s). Moreover, presenting the Basque case as a "model of a future postnational Europe and, more generally, of a radically multicultural globalized world" (13), Gabilondo's book proves also to be of great value for literary criticism in general; as a matter of fact, it develops a critical theory of postnationalism and is an inspiring resource for research on dynamics between minority literatures and major literatures.

Even if the book is presented as an English translation of *Nazioaren hondarrak*, which appeared originally in 2006 and which collected mainly articles written before 2000, the re-reading of it continues to be stimulating and challenging, not only for English readers, who seldom have access to literary studies on Basque literature, but also for Basque readers, as the book reaffirms the interest of bringing poststructuralist theory to Basque literary criticism, which is still too often immersed in "an old-fashioned positivist philological and sociological tradition" (vii). Furthermore, the author has modified the original version in a few places, updated the bibliography, added in the footnotes more substantial reconsiderations and discussions of recent works, and wrote a brief but powerful epilogue plenty of suggestive observations about developments in latest basque literatures from 2001 to 2018.

The book is organized in three sections. In the first one, entitled "Postnational Theory and History", Joseba Gabilondo relies on post-Marxism, psychoanalysis, feminism, post-